

Olaberria



Aurkibidea

Udalerria: Olaberria

Sarrera



Gipuzkoako hegoaldean
Goierri eskualdean dago.
Honako udalerrri hauek ditu
mugakide: iparraldean
Beasain; hego eta
mendebaldean Idiazabal; eta
ekialdean Lazkao. 1804ko
urriaren 15ean herria ofizialki
Lazkaotik banandu zen.

- **Biztanleak:** 937
- **Euskaldunak:** %52,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak



Jose Aldanondo Zubiberri (1945)

Pedro Aranburu Jauregi (1937)



Olaberriko Etxeberrigoikoa baserrian jaiotakoa (Errekalde auzoan), bertan bizi da. Aita bertakoa zuen eta ama beasaindarra. Fabrikan lan egindakoa, baina oraindik ere baserriko lanekin jarraitzen du. Ehiza eta arrantza kontuak ere ondo ezagutzen ditu, eta Olaberriko lehengo kontuak grazia handiz kontaktzen ditu. Olaberriko eskolan ikasi zuen txikitan, eta pare bat urtez Lazkaon. Olaberriko Errekalde auzoko biztanle gehienek bezala, Lazkaorekin hartu-eman handia izan du beti.

Inazio Intxausti Usabiaga (1929)



Inazio Olaberriako Intxaustiberri baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa; ama, berriz, zaldibiarra, Orkobia baserrikoa. Umetatik baserri lanetara ohituta, 35 urte zituela, ezkondua eta bi alabekin, Indar lantegian hasi zen lanean. Bizimodua aldatzen ari zen eta bera bezala, baserri lanetan ohitutako beste hainbatek ere bide hori hartu zuen. Olaberria eta inguruetako hainbat istori kontatu zizkigun Inaziok elkarrizketan.

Juan Mari Lasa Urteaga (1920-2018)



Juan Mari Olaberriako Matxalde baserrian jaio zen. Umetan eskolara joan zen, nahiz-eta baserri lanak egiteko sarri kale egin behar izaten zuen. Eskola bukatu eta Olaberriako Beingoetxeandia baserrira joan zen morroi. 18 urterekin soldaduskara joan zen; gerra garaia zen eta 6 urtez egon zen “machacante” moduan Espainiako probintzia ezberdinetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Festetan zezenak nafarrek bultzatuta

- **Hizlaria(k):** Aranburu Jauregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** OLA-001/010
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** lurre auzoan lantegia jarri zenean nafar ugari etorri zen kanpotik eta haiek bultzatuta, festetan zezenak jartzen zituzten. Pasadizo bat kontatzen du beraien lur-sailera ihes egindako zezen baten inguruan.

Transkripzioa

- lurre inguru haikok bertan zuen kapillatxo bat.
- Ta bestela Beasain...
- Ta bestela Beasaiñea jungo zien o. Gero ya hor “Poblao” o esaten dien pabelloi batzuk in zien. Naparra-ta etorri zan horrea...! Mutillek langillek, e! Baiño geo hola pixkat... ordun zeau zan hau, naparrez-ta bete zan ta. Hemen xexenak-eta jartzen zien.
- Laguntzailea: Bai.
- Akordauko zea.
- Nola zan hoi?
- L.: Festatan ta.
- Ba hor nola zien e...
- Laguntzailea2: Bakillak.
- Torerok o zea, jendillaje...
- L.: [...]
- Ba, joe, hoitakon bat konzejal jartzen huan ta, “por cojones” jarri beharra hauken zeak.
- Baiña zezenak...?
- Bakillak, bakillak. Bai. Baiño eak ateatzen zien, e! Gu, gu ez gea sekula atea hoin aurrea, baiño horik, sasoia latza eukiatik garai hartan, horik hor ibiltzen zian. Emakumak’e bai.
- Bai, e?
- Sartu ta... puu! “Jee!”, kixton jostok iñez ta hola ibiltzen hittuan. Ta hoitako batek alde in zon, ta gue behietaa zuzenen. Ta mekuen! gue behi...

Ta ni alanbrei beida, "nunbaitten puskauko zian, ba!" ta batez! Hor "da!" salto in ta...

- L.: Salto in ta...

- Ta harrapatzeko, ume itteko zeola ta, abixua bakerok harrapau in behar zala, ta beste behiekin batea ikuillua sartzeko. Baita sartu're guk! Gaur aiñeko sasoiak bagenduan. Sartu diau ikuillua, "la ostra!" jo!, burue altxatzen zian... Koxkor bat huan, e! Zenbat kilo pixauko zon, ba, harek? Ehun ta berrota hamar kilo? Berrehun biziik? Askoik ez. Ate erdikoa, ikuilluko atek garai hartan badakik nola zien, itxi ta hola ate erdikoa irikitzen huan bakarrik, harrek ez [zekoan]... "a cuarenta y cinco grados" zan e, ez zegoan dana irikita. Ta han zebillean. Ta harrapau in behar zala ta sokea bota behar ziola ta ez zekiat zer, bertako aittonea, galanta gaiñea. Ondo heldu balio...! Nik ikusi non angulo... ate hartati "ttiu!" nola atea zan, ta hurrungo gure misperon paren gora. Ta hemen azkenen tiroz bota zuen, e. Zea, peligro... zean bat [ostia joko] zula, hemen paseatzen zebillen batzuketin e, pixka bat aztorauta, ta azkenen hil in zuen. Hemen jan zuen gero, erreta. Beak jan zuen. Gu ez giñuan etorri. Ni ez nitxoan etorri, baiño seguru asko abixauko zien.

- Jaietan?

- Ez dakit nik nola antoliza... antolau zuen, hemen jan zan. Ta geoztikan nik hue zalako o nola... aiuntamientue kanbiau dalako o ez daulako afizioa galdu in dalako, uain ez da jartzen.

- Eta hori noiz hasi zan?

- Jo, nik ez diat esango fetxaik, baiño hau nik uain kontau diatena...

- Cincuenta-sesenta inguruan?

- Bai, nik hau kontau diaten istorik iual eukiko [zituk] hamabost urteti gora, e. Hoi, kaso hoi, gure ikuillun ta...

- L.: Gu ume kozkorak giñela.

- Gure ikuilluko kaso hoi zala ta.

- Zuk hamabost urte?

- Nik hamabost ez, nik hamabost baiño gehio.

- Gehio?

- Bai, nik igual orduako igual eukiko [nitzean] nik hogeita hamar urte.

- L.: Uain dala hogeita hamar urte edo hola, gu ume kozkorak giñela. Nik berrogeita bi dauzket, ta ni akordatzen naiz detaille hoikin, ta ume kozkorak giñen gu.

- Bai, hemen arte bat huan, arte haundi bat. Plazea asko galdu dik. Bueno, oain hola beharko dik, baiño ordun oso politte o errexa huan ixten.

- Eta itxi egiten zan.

- Itxi itten zan, holako, zea, jartzen zien, valla batzuk o, ta peligro haundie zeon lekun egur batzuk sartzen zizkien ta beste zea're, [hartaka] beste egur batzuk, langa batzuk, ta...

- Eta hori San Juanetan?

- San Juanetan.

1.2. Olaberriko festak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Jauregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: OLA-001/011
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » San Juan

- **Laburpena:** San Juanetan dultzaineroak izaten ziren kalean. Tradizio handiko ohitura zen hamaiketakoa ematea, baina herrikoek baino kanpokoek etekin gehiago ateratzen zieten eta kargu hartzen hasi ziren. Hamaiketakoa udaletxeak ordaintzen zuen, diru askoko herria izan da beti Olaberria. Festa giroko ekintzak aipatzen ditu; orkestina, bertsoak, etab.

Transkripzioa

- Eta bestela ze izaten zan, jaiak-eta nolakuak izaten zian?
- Jai normalak?
- San Juanetako jaiak eta.
- Ba jartzen huan aurrena meza nausie, inpreszindiblea, Lazkaoko ttunttunerokin, ta juten huan alkatea bere zotza hartuta, nungo zea ote zan, ta ibiltzen hittuan, ta gero betiti izan dik honek tradizio haundikoa hamaiketakoa.
- Bai?
- Hamaiketakoa. Herri hau izan dek, zuek ondo dakizuen bezela, diru asko manejan don herrie. Nola lurre hor, ta lurreko zona hortaa gero tailler txiki pillo bat sartu zan, ba, beti horrek... hortik dirue iyo dek honea. Ta hamaiketakoa Lazkaoti, Izaldi (Idiazabaldik)... etorri nahi zonai, danai. Baiña hor'e abusoa hasi zan. Egoista batzuk gea ta azkeneako herriko jendea baztarren. Herriko jendea juteako danak situatzen zien mahaietan, ta bah! Oain, hasieran pixkat... hor jarri zien nota batzuk anuntziotan, tabloietako anuntziotan, ahal dana herriko jendea juteko ta gu ibiltzeko ta zeak, baiño oain'e etortzen da kanpokoak.
- Eta hamaiketakoa ze izaten zan?
- Bua, "a tope"! bazkari bat. Majiña batek kafea eta kopea o purue hartuta jungo hittuan. Normala dek herriko... herriko... herriko jendek etxen'e ordun inbitauk eoten dittuk, inbitauk esaten zaken.
- Laguntzailea: Bai, bai.
- Inbitauk eoten hittuan, ta ordun hik hemen astakeri bat ezin huan jan, bestela etxea jun ta ez huan jaten ta etxen'e sekula eoten zan hobena ordun eoten huan ta, bueno. Itten zan simulakro bat. Baiño ni azkeneako, ni neoni, ni oain oso zaille da etortzea horrea e, baiño ni neoni ez... ezin non aguantau hor pasatzen zan zea.
- Hainbeste jende ta...
- Por ejemplo, gu hemen gare mahai hontan. E? Ta honea serbittuko zien neskak, a tope nahi zendun guztie: hasi txoixoa, almejak... beno, nik ez dakit zenbat klase. Ta ona, gaiña, hamaiketakoa serbitzen zuen. Ta hemengoa garbittu, ta jende bat bazegoan gero beste mahiea, ta gero beste mahiea, ta abusoa. Ta azkenenen ikusita nao bolsa kargatzen. Ta nere arten: "bale, bale". [Ordun txarra] itteko honea etorri? Hobe [nahi badek] salda bat hartu ta hemen egon.
- Eta hori aiuntamentuk pagatzen zun?
- Ordaintzen zun, bai, bai.
- Berak ordaintzen zun?
- Bai. Ta oandio, oandio... oandio hola dao hoi, e! oandio hola segitzen dik horrek. Hemen dirue... esaten duenak egik badie... Uaintxe bertan jakin nahi nike ze mobimentu daon, ez dakit zenbat etxe berri in behar duen. Ta hor beheko zea hori, pabilloi hori, ta zer eongo dan hemen. Hemen alkatea etaatzeko muturrak hausten dizkie e, ja!
- Eta bestela jaietan eta, ttunttunerok eta...?
- Bai, ta gero orkestinan bat jartzen zan. Bersolarik, gero deportek, ruralak...
- Hori goizez?

- Bai, eguardin askotan, atxalden'e bai... Gaur'e sega apustue zeok. Apustue, sega premia, bai. Gaur zeok, bai. Hementxe zelai... kolumne daoneko hortan. Ta nik ez dakit, ez det programaik eskutatu, baiño aurten'e hemen [bealdiko] palkoa jarrita zeok behintzet eta hoi soñujole o orkestinan batentzako jarrita eongo da. O bersolarik.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolan irakasle kanpotarrak; neskak eta mutilak aparte (OLA-001/002)

Eskolara Lazkaora joan ziren eta han, Don Bizentek erakusten zien. Garai hartako maisuak gerran elbarri gelditutakoak izaten ziren ez ziren jakitunak. Maisuak kanpotarrak ziren eta ez zekiten euskaraz; beraiek ere erdaraz ez zekitenez, gaizki ibiltzen ziren. Neskek udaletxean eta mutilek eskolan ikasten zuten, batera ikastea zentsuratua baitzegoen.

2. Eskola gutxi izan eta 14 urterekin lanera (OLA-001/003)

Eskola gutxi ikasi zuen Pedrok eta 14 urterekin lantegian hasi zen tornuan lanean. Baserriko lanetan jarduten ziren; aitona handik bizi izan zen. Aita, berriz, CAF lantegian aritu zen lanean Lazkaon. Pedrok Beasaingo Markesenean lan egin zuen.

3. Dotrina ikasgai nagusi (OLA-001/004)

Garai batean Olaberrian ez zegoen gaurko eraikuntzarik. Udaletxea bakarrik zegoen, baina hura ere ezberdina zen oso. Don Mariano izena zuen maisu batek ematen zizkien eskolaz kanpoko ikasketak. Pena du gehiago ez ikasi izana. Dotrina zen gehien ikasi zuena. Lantokian programa inportanteenak beste batek egin behar izaten zituen bera ez zelako gai.

4. Olaberritik Lazkaora jendea lanera (OLA-001/005)

Orduan jendea Olaberritik Lazkaora jaisten zen lanera. Eskolako liburuak aipatzen ditu eta eskolako gaiak. Bera gerraostean garai txarrean jaio zen, gerora eskolak hobetu ziren arren.

5. Baserritarrak kalera lanera (OLA-001/006)

Olaberrian 600 lagun inguru bizi ziren, denak baserritarrak. Gero lurre auzoan lantegia egin eta jendea hara joaten hasi zen lanera.

6. Lanetik jai hartzeko, bikarioaren baimena behar (OLA-001/007)

Garia egiten zen orduan San Pedroetan. Lanetik jai hartu nahi izanez gero, bikarioari eskatu behar zitzaion baimena. San Pedro eguna, aldiz, sakratua zen, jai egin beharrekoa. Lantegia martxan jarri zenean bukatu ziren ohitura horiek.

7. Ostiral Santu gaua bikarioarekin, santuaren zaintzan (OLA-001/008)

Garizuman elizan pasa ohi zuten denbora gehiena. Ostiraletan ezin zen haragirik jan. Arantzazutik apaiz bat etortzen zen eta haren sermoiak entzuten zituzten. Ostiral Santu egunez Jesus preso hartzen zuten eta Pedrok bikarioarekin pasa behar izaten zituen 2 ordu gauean haren zaintza egiten. Beldurrez joaten zen etxera bikarioak kontaktzen zizkion sineskeriekin.

8. Umetan ehizan (OLA-001/013)

Ume-umetan aitari eskopeta kendu eta joaten ziren ehizara. Gur ez dago lehengo hegazti ugartasunik. Hegaztien izenak aipatzen ditu.

9. Umetako jolasak (OLA-001/014)

Umetako jolasak aipatzen ditu.

10. Presan gertatutako pasadizoa (OLA-001/016)

Errota Handiko pasadizo bat. Gaiztakeria egin eta isilean pasatzeko ahalegina egiten zuten, azkenean gurasoak konturatu arren. Neskak ez ziren presara joaten mutilak bezala. Presen eta haietan gertatutakoen aipamena egiten du.

11. Helduan dantza egitea bekatu (OLA-001/017)

Olaberriko gazteak Ataungo San Gregoriora joaten ziren erromeriara. Orduan, helduan dantza egitea debekatua zegoen eta sueltokoa jotakoan Pedrok eta lagunek helduan egiten zuten, dantzari eskasak ziren eta. Erromeria garaiz bukatzen zen eta gero neska laguntzera joaten ziren. Kantera aldetik pasatuz gero, neska-laguntzea egiten ari zirela, harriak botatzen zizkieten. Pasadizo bat.

12. Inguruko herrietako erromeriak (OLA-001/018)

Ataungo San Martin auzoan ez zen erromeriarik izaten, San Gregorion bakarrik egiten zen. Inguruko herri eta auzoetara ere joaten ziren bizikletaz. Bolalekuan boloetan jokatzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com